

BALIO PROPOSAMENA

Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Naturako aproposak diren arropak egitea, hau da, material birziklatuekin eta organikoekin egindakoa. Gure kolaborazioarekin kutsadura industrialaren kontra borrokatzen duten proiektuek diru gehiago izango dute ingurumenerako kaltegarriak ez diren industriak sortzeko.

Gure arroparekin lortu nahi dugun helburu bat jendea kontzientziatzea da kutsaduraz eta klima aldaketaz ardura hartzeko. Denborarekin, pentsatzen ari gara organizazio bat zabalyzea, hau da, naturari dirua emateko organizazio bat sortzea diru guztia hor ailagetzen den ziurtatzeko.

Helburu nagusia ingurumena zaintzea da, azken batean behar dugulako. Horrez gain, funtsik gabeko zurrumurru asko gezurtatzea ere bada; izan ere, animalien larruek edo gure planeta eskala globalean kaltetzen duten ehun artifizialek egiten dutenean baino ez da kalitatezko arropa. Proiektu honekin frogatu nahi dugu ez duela horrela izan behar, kalitate oneko arropa aurkitu dezakegula, gure gustura, natura errespetatuz eta zainduz.

Ohartzen gara pentsaera hori pertsona askori dagokiola eta, horrexegatik, ez dela erraza izango zurrumurru horiek gezurtatzea. Baina uste dugu gureen antzeko ekimenak dituzten pertsona gehiagok arrazoi horren alde egiten badute, gauza asko alda ditzakegula edo, behintzat, jendeak jakingo duela egia.